



2013

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

<u>SAILA / DEPARTAMENTO</u>	<u>ATALA / SECCIÓN</u>	<u>FUNTZIONALA / FUNCIONAL</u>
09. Ingurumena 09. Medio Ambiente	02. Ingurumen-Azpiegiturak 02. Infraestructuras Ambientales	440.101 Ingurumen-Azpiegiturak 440.101 Infraestructuras Ambientales

Ingurumen azpiegiturak

Programa honen helburua Bizkaiko Foru Aldundiak ingurumeneko inbertsioak egiten laguntzea da arlo horretan udalek dituzten eskumenen eraginkortasuna bermatzeko.

Arlo honetako helburuak lortzeko epe ertaineko eta epe luzeko planak prestatu behar dira.

1. Ura

Uren arloan, 2013ko ekitaldian helburu hauek lortu nahi ditugu:

- Ur-hornidura nahikoa izatea bermatzea, bai kopurua, bai kalitatea, uraren erabilera iraunkorra, orekatua eta ekitatiboa izan dadin.
- Bizkaiko uraren hornidurako eta saneamendurako lehen mailako sareak osatzeko behar diren azpiegitura hidraulikoak eraikitzea.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko uren egoera ekologikoa ona izatea, 2000/60/EE Zuzentarauan ezarritakoarekin bat etorriz.

Aurrekontuetan bildutako proiektuak eta obrak direla eta, hauek egingo dira:

- Karrantzako tratamendu zentro berria.
- Urdaibai Bird Centre zentroko saneamendua.

2. Administrazioaren koordinazioa

Azpiegitura hidraulikoak eraikiko dira Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko eta Busturialdeko Ur Partzuergoko udalerrietan, berriaz sinatutako hitzarmenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Infraestructuras ambientales

Este programa tiene por objeto la cooperación de la Diputación Foral de Bizkaia con los municipios del territorio en la ejecución de inversiones en materia de medio ambiente, a fin de garantizar la efectividad de las competencias municipales en esta materia.

Los objetivos de planificación en esta materia han de ser planteados a medio y largo plazo.

1. Aguas

En materia de aguas, los objetivos que se pretenden desarrollar durante el ejercicio 2013 son los siguientes:

- Garantizar el suministro suficiente de agua en cantidad y calidad suficiente, para un uso del agua sostenible, equilibrado y equitativo.
- Impulsar la construcción de las infraestructuras hidráulicas que completan las redes primarias de abastecimiento y saneamiento de aguas de Bizkaia.
- Colaborar en la consecución del buen estado ecológico de las masas de agua del T.H. de Bizkaia, de acuerdo con lo establecido en la Directiva 2000/60/CE.

En cuanto a los proyectos y obras presupuestadas, se llevará a cabo la ejecución de las siguientes obras:

- Nueva planta de tratamiento de Karrantza.
- Saneamiento Urdaibai Bird Centre.

2. Coordinación Administrativa

Se ejecutarán infraestructuras hidráulicas en los municipios del ámbito del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, así como del Consorcio de Aguas de Busturialdea, recogidas en los correspondientes Convenios.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
09. Ingurumena 09. Medio Ambiente	02. Ingurumen-Azpiegiturak 02. Infraestructuras Ambientales	440.101 Ingurumen-Azpiegiturak 440.101 Infraestructuras Ambientales

Toki Agenda 21eko diru-laguntzen programak aurrera jarraituko du udalerrietako ingurumena hobetzeko azpiegiturak eraikitzeko: azpiegitura hidraulikoak, hondakinen tratamendua, eraginkortasun energetikoa, mugikortasun iraunkorra, etab.

Gainera, aurrera jarraituko dute hondakinen kudeaketarako diru-laguntzen programak etxeko hondakin organikoa (5. edukiontzia) konposta egiteko erabiltzea sustatzeko diru-laguntzen programak.

3. Hidrologia

Arlo honetan Bizkaiko ibaietako Aforo eta Kalitate Estazioen Sarea kudeatzen jarraituko da.

4. Hondakinak.

Hondakinen kudeaketari dagokienez, helburu nagusia BUHKPI 2005-2016 betetzea da. Horrek honako aukeren hierarkia-eskailera hartzen du bere gain: hondakinak kudeatzeko (ahal den neurrian, hondakinak sortzea saihesteko), hondakinak sortu ondoren dauzkaten baliabideak ahalik eta gehien balioztatzeke eta ahalik eta gutxien isurtzeko.

Bizkaiko Hondakinak Prebenitzeko 2010-2016 Planean ezarritako helburuak, ildo estrategikoak eta xedeak sustatuko dira, prebentzioaren arloan, Hondakinei buruzko Esparru Zuzentarauari erantzuteko. Hori dela eta, Garbiker bidez hondakinak berriz erabiltzeko prestatzeko tratamendua eskainiko zaie Bizkaiko udalerriei.

Hondakin biodegradagarrien bilketa selektiboa bultzatuko da, konposta egiteko. Horretarako bosgarren edukiontzi pertsonalizatua jarriko da eta horri buruzko informazioa zabaltzeko plana abiatuko da eskatuko duten Lurraldeko udalerrietan.

Arraizen (Bilbo) tratamendu mekaniko eta biologikoko planta eraikitzeko obrak amaituko dira.

Se continuará con el Programa de Subvenciones de Agenda Local 21 para los Ayuntamientos con planes de acción para la ejecución de infraestructuras que redunden en la mejora ambiental del municipio, tales como infraestructuras hidráulicas, residuos, eficiencia energética, movilidad sostenible, etc.

Asi mismo, se continuará con el programa de subvenciones en materia de gestión de residuos tales como el programa de subvenciones para el fomento del compostaje de la fracción orgánica del residuo doméstico (5º Contenedor).

3. Hidrologia

Continuará gestionándose la Red de Estaciones de Aforos y de Calidad de los ríos de Bizkaia.

4. Residuos.

En materia de gestión de residuos el objetivo prioritario es el cumplimiento del PIGRUB 2005-2016 que asume la escalera jerárquica de opciones de gestión de los residuos, consistente en prevenir al máximo su generación, de valorizar al máximo los recursos que contengan, una vez generados, y de verter el mínimo posible, siempre con las máximas garantías medioambientales.

Se impulsarán los objetivos, líneas estratégicas y metas establecidas en el Plan de Prevención de Residuos de Bizkaia 2010-2016, para dar respuesta a la Directiva Marco de Residuos en materia de prevención. En este sentido, a través de Garbiker, se prestará a los municipios de Bizkaia el tratamiento de preparación para la reutilización de residuos.

Se potenciará la recogida selectiva y reciclaje de residuos biodegradables para su transformación en compost, mediante la instalación del quinto contenedor personalizado, incluido el plan de información, en los municipios y mancomunidades del territorio que lo soliciten.

Se culminarán las obras de construcción de la planta de tratamiento mecánico – biológico de residuos en Arraiz (Bilbao).



2013

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
09. Ingurumena 09. Medio Ambiente	02. Ingurumen-Azpiegiturak 02. Infraestructuras Ambientales	440.101 Ingurumen-Azpiegiturak 440.101 Infraestructuras Ambientales

Betelan-proiektuen espedienteak tramitatuko dira, Hondakinak hondakindegira botaz eta betelanak burutuz deuseztatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua oinarri hartuta.

Hondakinen Behatokiaren bidez urtero Bizkaian ekoizten diren hiri hondakinak zenbatesten jarraituko dira.

5. Ingurumena leheneratzea.

Ingurumen Sailaren jardun-esparruetako bat gun batzuetako ingurumena lehengoratzeko da, ekipamenduak eta zerbitzuak jarrita aire zabaleko aisiarako erabili ahal izateko.

Jarduketa-eremu honetan, azken urteotan, hainbat espazio-mota sortu dira, besteak beste: hiri-parkeak, parke metropolitarrak eta aisiarako eremuak. Horiek erakargarriak dira, batik bat, kokaleku, paisaia, hornidura eta ekipamenduetatik, bai eta paisaia- eta natura-balio handia duten lekuetan dauden paisaia-ibilbideetatik eta oinezkoentzako pasealekuetatik ere.

Narriatutako espazio naturalak eta oinezkoentzako pasealekuak birgaitzea sustatuko da. Helburua aisiarako espazio horiek herritarren zerbitzurako jartzea da, eskaria asetzeko.

2013 ekitaldian zehar, erabiltzaileek kalitatezko zerbitzua eta etengabeko hobekuntza emateko, arestian aipatu diren aisialdi guneetan, parkeetan eta oinezkoentzako ibilbideetan etengabeko mantenu lanak egingo dira.

Se tramitarán los expedientes de proyectos de rellenos en base al Decreto 49/2009, de 24 de febrero, por que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y la ejecución de los rellenos.

Mediante el Observatorio de Residuos, se seguirá cuantificando los residuos urbanos que se generan anualmente en Bizkaia.

5. Recuperación Ambiental.

La recuperación ambiental de espacios para el esparcimiento al aire libre, con la dotación de equipamientos y servicios, es una de las áreas que se viene desarrollando desde el Departamento de Medio Ambiente.

En esta área de actuación, durante los últimos años se han creado diferentes tipos de espacios, como son los parques urbanos, parques metropolitanos y áreas de esparcimiento, especialmente atractivas por su localización, paisaje, dotaciones y equipamientos, así como itinerarios paisajísticos y paseos peatonales situados en lugares de gran valor paisajístico y natural.

Se impulsará la recuperación medioambiental de los espacios naturales y paseos peatonales degradados, atendiendo a la demanda de estos espacios de ocio y disponiendo los mismos al servicio de los ciudadanos.

Durante el ejercicio 2013, al objeto de ofrecer a los/as usuarios/as un servicio de calidad y mejora continua, las mencionadas áreas de esparcimiento, parques y paseos peatonales serán objeto de una labor continua de mantenimiento.